

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/020

Izenburua: GIZARTE ZERBITZUEN INSTITUTU NAZIONALAREN (INSERSO) PROBINTZIA ZUZENDARITZA

Datak: 1978-1991

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 819 instalazio unitate

Sortzailea: GIZARTE ZERBITZUEN INSTITUTU NAZIONALAREN (INSERSO) PROBINTZIA ZUZENDARITZA

Erakundearen historia:

Azaroaren 16ko 36/1978 Errege Lege Dekretuaren bidez sortu zen, Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaile izateko, eta Osasun eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren zuzendaritzaren eta tutoretzaren mendekoa zen. Haren helburua zen gizarte laguntza eta gizarte segurantzaren sistemako gizarte zerbitzuak kudeatzea. Haren jarduera gauzatzeko aurreikusten zen, batez ere, hirugarren adinekoen eta minusbaliatu fisiko eta psikikoen gizarte zerbitzuak eta programa bereziak baliatzea.

Uztailaren 30eko 1856/1979 Errege Dekretuaren bidez, Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalaren (INSERSO) egitura eta eskumenak arautu ziren, eta probintzia zuzendaritzak sortu ziren.

Probintzia zuzendaritza horietan zuzendaritza bat eta probintzia zuzendariordetzak zeuden (azken hori, ez Nafarroaren kasuan). Onuradunei arreta eraginkorra emateko ezarri ziren, biztanleriaren banaketaren arabera eta esleitutako eginkizun eta eskumenen arabera. Era berean, idazkaritza bat eta unitate administratibo eta teknikoak zituzten, bai eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzarekin eta Gizarte Segurantzako eta Osasuneko institutu nazionalekiko lotura unitateak ere.

Hasieran, Osasun eta Gizarte Segurantzaren Ministerioari atxiki zitzaion, eta, geroago, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioari (1981), Gizarte Gaietako Ministerioari (1988) eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioari (1986).

1985ean, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak iraungitza jo zuen Gizarte Laguntzako Institutu Nazionala (GLIN), eta INSERSOri eman zizkion ordura arte Institutu horrek betetzen zituen eginkizun eta zerbitzu ia guztiak, bai eta Gizarte Ekintzako Zuzendaritza Nagusiari esleitutako gizarte zerbitzuetako inbertsioen kudeaketa ere.

Abenduaren 28ko 1681/1990 Errege Dekretuaren bidez, INSERSOren eginkizun eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zitzaizkion.

Martxoaren 1eko 238/2002 Errege Dekretuaren bidez indargabetu zen, autonomia erkidegoetara eskualdatzeko prozesua bukatzean.

INSERSOren kudeaketa batez ere kolektibo hauetara bideratu zen: hirugarren adinekoak, minusbaliatu fisiko eta psikikoak eta baztertutako biztanleria. Estatuko, Administrazioako eta Gizarte Segurantzako zenbait erakundek dirulaguntzak ematen zizkieten kolektibo horiei, beren eskumenaren arabera, bakoitzaren beraren zerbitzuak emateko politika goiti-beheiti. Aniztasuna saihesteko, irizpideak argitzeko eta erakundeen eskumenak banatzeko, laguntza publikoen araubide bateratu bat ezarri zen 620/1981 Errege Dekretuaren eta 1982ko martxoaren 5eko Aginduaren bidez.

Funts horretatik gorde den dokumentazio gehiena laguntza erregimen horri dagokio, bai eta Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legetik (13/82 L) eratorritako prestazioetatik ere. Nabarmentzekoak dira, halaber, minusbaliatu izaera aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko espedienteak, bai eta kolektibo horiei guztiei arreta emateko zentroak kudeatzeko espedienteak ere. Garrantzitsua da, halaber, Probintzia Zuzendaritzako langileen kontabilitateko eta kudeaketako dokumentazioa.

Funtsaren antolamendua:

020.01 GOBERNUA

20.01.01 Gobernu organoen espedienteak

020.02 ADMINISTRAZIOA

020.02.01 Memoriak eta txostenak

020.02.02 Korrespondentziaren sarrerako eta irteerako erregistroa

020.02.03 Korrespondentzia

020.02.04 Kide anitzeko organoetan izandako parte-hartzea (eztabaida eta aholkularitza)

020.02.05 Errekurtso juridiko-administratiboak

020.03 GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA

020.03.01 Langile-hornitzeen espedienteak

020.03.02 Ordainsariak

020.03.03 Gizarte prestazioak

020.03.04 Lan harremanak

020.03.05 Ikuskatze espedienteak eta diziiplina araubidea

020.04 BALIABIDE EKONOMIKOEN KUDEAKETA

020.04.01 Aurrekontuak

020.04.02 Aurrekontuen jarraipena eta kontrola

020.04.03 Kontabilitate arloko espedienteak

020.04.04 Aurrekontuz kanpoko kudeaketa

020.04.05 Kutxa

020.05.06 Prestazioen kontrola eta fiskalizazioa

020.05 ONDAREA

020.05.01 Ondasunen kudeaketa

020.06 LAGUNTZA ZENTROEN KUDEAKETA ETA FINANTZAKETA

020.06.01 Erakunde publiko eta pribatuekiko hitzarmenak, gizarte zerbitzuen arloan

020.06.02 Zentroen kudeaketako espedienteak

020.06.03 Erakundeen laguntzak minusbaliatuen zentro eta zerbitzuentzat

020.06.04 Erakundeen laguntzak hirugarren adinekoen arretarako zentro eta zerbitzuentzat

020.06.05 Jarduera soziokulturalak hirugarren adinekoen zentroetan

020.06.06 Haurtzaindegien funtzionamendurako laguntzak

020.07 PRESTAZIO EKONOMIKO ASISTENTZIALAK

020.07.01 Prestazioak aitortzeko balorazio espedienteak

020.07.02 Minusbaliotasunagatiko prestazio ekonomikoak (1970eko maiatzaren 8ko MA)

020.07.03 Minusbaliatuentzako banakako laguntzak (1982ko martxoaren 5eko MA)

020.07.04 Minusbaliatuentzako prestazio sozial eta ekonomikoak (Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legea)

020.07.05 Minusbaliatuentzako lanerako lanbide prestakuntzako ikastaroak (EGIF)

020.07.06 Adinekoentzako banakako laguntzak

020.07.07 Hirugarren adinekoentzako termalismo sozialeko programa

020.07.08 Hirugarren adinekoentzako oporren programa

020.07.09 Hirugarren adinekoentzako etxeko zerbitzuak

020.07.10 Premia larriko laguntzak

Sarrera baldintzak:

Sarbide mugatua. Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.